


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa baten arrakasta zihurtatzeko bezeroekiko daukagun harremana ona izatea ezin bestekoa da, hau da, bezero berriak lortzeaz gain dagoeneko dauzkagunak mantentzen saiatzen behar gara. Gure bezeroak, Goierriko herrietako pertsonak izango dira, eta espero dugu horrela enpresa munduan zabaltzea eta euskal herriko beste hainbat herriguneetara iristea. Bezeroekiko, gertuko harremana mantentzen saiatuko gara, hala haiek ez dituzte zalantzak izango gure produktua erostean, eta izango balituzte konpontzen saiatuko gara. Bezeroek gure produktuarengan konfiantza eduki behar dute, gainera gehiago den produktua jakinda eta osasunarekin zerikusia duela jakinda, horregatik ere uste dugu gertuko harremana hona izango litzatekela.



Horretarako, gure sare sozialetan, eta gure publizitate guztietan (eitb-n, gaztean eta kalean), guk saldu behar ditugun musukoak pasatzen dituzten segurtasun-neurri guztien berri emango dugu, eta prezio lehiakorragoan eta modu errazago eta erosoagoan saltzen saiatuko gara. Horretaz gain, norbaitek gure produktuarekin zalantza edo kexaren bat izango balu, gure instagram kontuaren bidez ere jakinarazteko aukera izango luke, eta lehenbailehen konpontzen saiatuko gara, bezerorik ez galtzeko eta baita bezero berriak egiteko ere.



Aipatzea ere, gure musukoak ez direla musuko bereziak izango, musuko arruntak eta farmazietan aurkitu ditzazkegunak, izan ere, horiek beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartzen dituzte, eta guk ere gure bezeroen segurtasuna eta osasuna musuko pertsonalizatu eta politen aurretik jartzen ditugu. Honetaz gain, gure produktua Goierriin saltzen hasiko garenez, gure bezeroekin euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dugu, ahalik eta ondoen edo nahi duten moduan komunikatu ahal izateko.

